| | |
|---|---|
| **EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 28koa, Koordinazio eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordetzarena, unibertsitatearen eta eragile sozialen arteko hausnarketa eta eztabaidarako jarduerak finantzatzeko laguntzetarako deialdia egiten duena, interes partekatuko estrategiak identifikatzeko** | **RESOLUCIÓN del 28 de mayo de 2025, del Vicerrectorado de Coordinación y Compromiso Social, por la que se convocan ayudas destinadas a financiar actividades de reflexión y debate entre la universidad y los agentes sociales para identificar estrategias de interés compartido.** |
| Unibertsitateak bizitza sozial, politiko eta kulturalean parte hartzea EHUren konpromiso sozialaren ezinbesteko alderdia da. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen eta gizartearen arteko topagune gisa sortu zen EHUgune. Eta Unibertsitateak inklusio, ekitate eta jasangarritasunaren balioekiko duen konpromisoaren isla gisa sortu zen Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritza. | La participación de la Universidad en la vida social, política y cultural es parte esencial del compromiso social de la EHU. Como punto de encuentro entre la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y la sociedad nació EHUgune. Como evidencia del compromiso de la Universidad con los valores de la inclusión, equidad y sostenibilidad nace la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social |
| | |
| Bi Zuzendaritzek uste dute benetan garrantzitsua dela unibertsitateko eragileen eta erakunde sozialen arteko elkarrizketa. Harreman horrek bide eman behar die hausnarketa eta hobekuntza partekatuei, konpromiso soziala eta jasangarritasuna indartuko duten eraldaketa estrategien eta apustuen diseinuari begira. Eraldaketa soziala da ekitatea eta inklusio soziala sustatzea, bai eta herritarren solidaritatearen eta erantzukizunaren kultura bat finkatzea ere. EHUk eragile sozialekin lan egiteko eta indartzeko estrategietan kolaboratzeko dituen baliabideetako bat mikrokredentzialen prestakuntza programak dira.<br><br>Bi dira deialdi honen berrikuntzak 2024ko deialdiarekin alderatuta. Lankidetzaren entitate hartzaileei dagokienez, unibertsitatearen eta erakunde sozialen sorta zabalago baten (mugimendu sozialez gain) arteko harreman estrategien aldeko apustua egingo da. Deialdiaren helburuei dagokienez, erakunde horien eraldaketa sozialerako gaitasuna hobetzera bideratutako hausnarketa partekatua ahalbidetuko duten ekintzak gauzatzeko xedea ezarri da. | Ambas direcciones consideran relevante el diálogo entre los agentes universitarios y las organizaciones sociales. Esta relación debe permitir una reflexión y mejora compartidas para el diseño de estrategias y apuestas de transformación que refuercen el compromiso social y la sostenibilidad. Se entiende la transformación social como la promoción de la equidad y la inclusión social, así como la consolidación de una cultura de solidaridad y responsabilidad ciudadana. Uno de los recursos con los que cuenta la EHU para colaborar en las estrategias de refuerzo y colaboración con los agentes sociales son los programas formativos de micro-credenciales.<br><br>La novedad de esta convocatoria frente a la de 2024 es doble. Respecto de las entidades destinatarias de la colaboración, se apuesta por estrategias de relación entre la universidad y una gama más amplia de organizaciones sociales, además de los movimientos sociales. Respecto del objetivo de la convocatoria, se busca desplegar acciones que permitan una reflexión compartida orientada a la mejora de la capacidad de transformación social de estas organizaciones. |
| **DEIALDIAREN OINARRIAK** | **BASES DE LA CONVOCATORIA** |

| 1. Helburua | 1. Objeto |
|---|---|
| Laguntzen deialdi honen xedea da hausnarketa partekaturako espazioak eta prozesuak sustatzea EHUko langileen eta/edo ikertaldeen eta erakunde sozialen artean, erakunde sozial horien jardun eraldatzailea hobetzeko, GGKEak, hirugarren sektoreko organismoak, mugimendu sozialak eta/edo instituzio publikoetako eragile teknikoak barne hartuta.<br><br>2025eko iraila eta abendua bitartean garatu beharreko ekintzek bideratu egin behar dituzte unibertsitatearen eta ehun sozialaren jardun eraldatzailea hobetzera bideratutako programak —lehentasunez, prestakuntza programak— zehaztu edo diseinatzeko balio duten erakunde sozialen arteko lankidetza ekintzak. Jardun eraldatzailea da ekitatea eta inklusio soziala sustatzea, bai eta herritarren solidaritatearen eta erantzukizunaren kultura bat finkatzea ere.<br><br>Oinarri horietatik abiatuta, deialdiaren xedea da EHUko pertsonen eta/edo ikertaldeen eta erakunde sozialen arteko hausnarketa partekatua ekarriko duten ekintzak finantzatzea, jardun eraldatzailea hobetzeko programak —lehentasunez, baina ez esklusiboki, prestakuntza programak— diseinatzeko. Deialdiak ez du programa horiek martxan jartzea finantzatuko, baina EHUgunek talde adjudikaziodunekin lan egingo du etorkizunean gauzatzeko. | Esta convocatoria de ayudas busca impulsar espacios y procesos de reflexión conjuntos entre el personal y/o los equipos de investigación de la EHU y las organizaciones sociales, para la mejora de la práctica transformadora de estas organizaciones sociales, incluyendo ONGDs, organismos del tercer sector, movimientos sociales y/o agentes técnicos y técnicas de las instituciones públicas.<br><br>Las propuestas, a desarrollar entre septiembre y diciembre de 2025, deben concretarse en acciones de colaboración entre la universidad y las organizaciones sociales que sirvan para perfilar o diseñar programas, preferentemente formativos, destinados a la mejora de la práctica transformadora del tejido social. Se entiende por práctica transformadora la promoción de la equidad y la inclusión social, así como la consolidación de una cultura de solidaridad y responsabilidad ciudadana.<br><br>Sobre estas bases, esta convocatoria busca financiar acciones que propicien una reflexión compartida entre personas y/o grupos de investigación de la EHU y organizaciones sociales para diseñar programas de mejora de la práctica transformadora, preferentemente, aunque no de forma exclusiva, a través de programas formativos. Esta convocatoria no financia la puesta en marcha de estos programas, aunque desde EHUgune se colaborará con los grupos adjudicatarios para su potencial concreción en el futuro. |
| **2. Eskatzaileak** | **2. Solicitantes** |
| 2.1. Honako hauek parte hartu ahal izango dute deialdian: | 2.1. Podrán participar en esta convocatoria: |
| A – EHUko irakasle-ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek, kontratu modalitatea edozein dela, beti ere 2025 eta 2026 ikasturtean harreman hori bermatzen bada. Eskatzaileek ekintzak aurkeztu ahal izango dituzte banaka edo taldeka (hala bada, gehienez bi arduradun izendatu ahal izango dituzte jarduerarako). Eskatzaileak proposatutako ekintzan zuzenean parte hartuko duten pertsonak izan beharko dira. | A – El personal docente e investigador y de administración y servicios de la EHU, en cualquier modalidad contractual siempre y cuando se garantice la vinculación durante el curso 2025 y 2026. Las personas solicitantes podrán presentar acciones individualmente o en grupo (designando, en este caso, a hasta dos personas responsables de la actividad). Quien o quienes figuren como solicitantes habrán de ser personas que participarán directamente en la realización de la acción propuesta. |

| | |
|---|---|
| B –EHUko Elkarteen Erregistroan izena emanda dauden unibertsitate elkarteak. Ekintzak aurkeztu ahal izango dituzte beren kabuz edo sail, eskola, fakultate eta EHUko gainerako unitate administratibo edo akademikoekin batera. | B – Las Asociaciones universitarias inscritas en el Registro de Asociaciones de la EHU, que podrán presentar acciones solas o junto con Departamentos, Escuelas, Facultades y demás unidades administrativas o académicas de la EHU. |
| 2.2. Eskaeran argi eta garbi adierazi beharko da lankidetza ezarriko den erakunde sozialetako, GGKEetako, hirugarren sektoreko organismoetako, mugimendu sozialetako eta/edo instituzio publikoetako eragile teknikoen kasuan harremanetarako pertsona edo pertsonak zein d(ir)en. Kolektibo bat baino gehiago izan daiteke. | 2.2. En la solicitud se tendrán que identificar de forma clara las personas o la persona de contacto representativas de las organizaciones sociales, ONGDs, organismos del tercer sector, movimientos sociales y/o agentes técnicos y técnicas de las instituciones públicas con quienes se plantea colaborar. Podrán ser varios colectivos. |
| **3. Finantziazioa** | **3. Financiación** |
| 3.1. Deialdira **20.000 euroko** aurrekontua bideratuko da, 3904 E55 funtzionala aurrekontu partidatik. Ekintzak puntuazio ordenaren arabera finantzatuko dira, handienetik txikienera, eta kreditua agortu arte. Nolanahi ere, ez dira finantzatuko 65 puntuko gutxieneko puntuazioa jasotzen ez duten proiektuak. Bideratutako zenbatekoarekin ezin badira ebaluazio positiboa jaso duten ekintza guztiak finantzatu, aurrekontu partida areagotzeko aukera baloratuko da. | 3.1. El Presupuesto destinado a esta convocatoria se encuentra en la partida presupuestaria 3904 funcional E55 y es de **20.000 euros**. Las acciones serán financiadas por orden de puntuación de mayor a menor hasta agotarse este crédito. Los proyectos que no obtengan la puntuación mínima de 65 puntos, no serán tenidos en cuenta, y, por tanto, no obtendrán financiación. En el caso de que la cantidad destinada no alcance para la financiación de todas las acciones positivamente evaluadas, se valorará la posibilidad de incrementar la partida presupuestaria. |
| 3.2. Deialdiaren lehen oinarrian deskribatutako jarduketa esparruetara egokitzen diren ekintzak finantzatuko dira, kreditua agortu arte. | 3.2. Serán financiadas las acciones que se ajusten a los ámbitos de actuación descritos en la base primera de esta convocatoria hasta agotarse este crédito. |
| 3.3. Ebaluazio prozesuan ikusten bada ekintzetan aldaketak egitearen bidez deialdiaren helburuetara hobeto egokitzeko aukerarik dagoela, eskatzaileei eskatuko zaie aldaketa horiek egin ditzatela. Ebaluazio prozesurako eskatu ahal izango da ekintzaren arduraduna bertaratzea, eskaeraren azalpen eta xehetasun gehigarriak emateko. | 3.3. Si en el proceso de evaluación se observara que mediante la introducción de modificaciones en las acciones puede conseguirse una mejor adaptación de los mismos a los objetivos de la convocatoria, se sugerirá a las personas solicitantes la introducción de dichas modificaciones. En el proceso de evaluación se podrá requerir la presencia de la persona responsable de la acción para recabar explicaciones y detalles adicionales de la solicitud. |
| 3.4. **Eskaera bakoitzeko gehieneko finantzazioa 3.000 eurokoa izango da**. Deialdiaren ebazpenaren aurrekontu globalak kreditua agortzen ez badu, diruz lagundutako proiektuen partida areagotu ahalko da, proportzionalki, hura agortu arte. Kasu horretan, | 3.4. La **financiación máxima por solicitud será de 3.000 euros**. En el caso de que el presupuesto global de la resolución de la convocatoria no agote el crédito, se podrá aumentar la partida de los proyectos subvencionados, proporcionalmente hasta agotarlo. En este caso, o en el caso de que la |

| | |
|---|---|
| edo ekintza partzialki onartzen baldin bada, eskatzaileak edo eskatzaileek 10 egun naturaleko epea izango dute birformulazio tekniko nahiz ekonomikoa aurkezteko, jarduerak eta baliabideak azkenean adjudikatutako laguntza ekonomikora egokitzeko. | acción sea aprobada parcialmente, la persona o personas solicitantes dispondrán de un plazo de 10 días naturales para presentar la reformulación, tanto técnica como económica, ajustando las actividades y recursos a la ayuda económica finalmente adjudicada. |
| 3.5. Dirulaguntzaren kargura honako gastu hauek ordaindu ahal izango dira: | 3.5. Con cargo a la subvención se podrán sufragar los siguientes gastos: |
| - Jardunaldiak, mintegiak, lantegiak eta abar antolatzeko eta garatzeko gastuak, parte-hartzaileen lekualdatze gastuak barne. | - Gastos organizativos y de desarrollo de las jornadas, seminarios, talleres, incluyendo gastos de desplazamiento de las personas participantes. |
| - Kontratazioak, kanpoko zerbitzuak eta langileak barne, berariazko lanak egitekoak eta diseinuaren, ekoizpenaren, inprimaketaren, banaketaren, itzulpenen eta ikus-entzunezkoen ondoriozko kostuengatikoak. Partida horren baitan sartuko da, halaber, lantegiak eta mintegiak bideratu eta dinamizatzeko zerbitzuen kontratazioa. | - Contrataciones, que incluyen servicios y personal externos para la realización de trabajos específicos y costes derivados de diseño, producción, impresión, distribución, traducciones, audiovisuales. También se contempla en esta partida la contratación de servicios de facilitación y dinamización de los talleres y seminarios. |
| - | |
| 3.6. Dirulaguntza bateragarria da beste laguntza batzuekin, baina ez da inola ere gainfinantzaziorik gertatuko. | 3.6. La subvención es compatible con otras, pero en ningún caso podrá producirse la sobrefinanciación. |
| 3.7. Proiektuan parte hartzen duten EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen eta irakasle-ikertzaileen kasuan, ezingo dira ordaindu emandako dirulaguntzaren kostu zuzenen kargura: | 3.7. En el caso del personal docente e investigador y de administración y servicios de la EHU, sea participante en el proyecto, en ningún caso podrán sufragarse con cargo a los costes directos de la subvención otorgada: |
| - prozesuan parte hartzeagatiko ordainsariak | - honorarios por participar en el proceso |
| | |
| | |
| **4. Burutu beharreko proiektu edo ekintzen baldintzak** | **4. Requisitos de los proyectos o acciones a desarrollar** |
| 4.1. Garatu nahi den ekintzaren edo proiektuaren eskaera arduradunek beraiek aurkeztu beharko dute, eta pertsona horiek edo | 4.1. La solicitud del proyecto o de la acción o acciones a desarrollar deberá ser presentada por las personas responsables, sin que estas personas, |

| | |
|---|---|
| EHUko parte hartzaileek ezingo dute proiektu batean baino gehiagotan parte hartu. | ni ninguno o ninguna de las participantes de la EHU pueda participar en más de un proyecto. |
| 4.2. Proiektuak edo ekintzak **onartu izana jakinarazten denetik 2025eko abenduaren 31ra bitartean gauzatu beharko dira**. | 4.2. Los proyectos o acciones podrán **comenzar a ejecutarse desde la notificación de la aprobación del mismo hasta el 31 de diciembre de 2025**. |
| 4.3. Ekintzetan EHUko unibertsitateko kideek eta erakunde sozialetako, GGKEetako, hirugarren sektoreko organismoetako eta mugimendu sozialetako kideek eta instituzio publikoetako eragile teknikoek parte hartu beharko dute. Komeni da jarduera zehatz horiek deialdia amaitu ondoko ibilbide eta lan batean txertatu ahal izatea, helburu izanik mikrokredentzial bateratu baten proposamena edo 2026an erakunde sozialen jarduna hobetzen lagun dezakeen beste edozein jardueraren proposamena aurkeztea. Zehazki, baina ez esklusiboki, proposatzen da EHUk mikrokredentzialen programa zabaltzeko edo epe laburreko prestakuntza jardueretara lotutako EHUren berezko ikasketak indartzeko egiten duen apustuarekin irekitzen dituen aukerak baliatzea.; izan ere, apustu horren helburua da gaitasun, konpetentzia eta ezagutza espezifikoak ematea. Egun, abian da unibertsitateko mikrokredentzialen matrikularen zenbatekoa % 70 arte murriztea ahalbidetzen duen plan bat. Gainera, matrikula bekak ere ematen ditu zaurgarritasun egoeran dauden pertsonentzat. | 4.3. Las acciones tienen que contar con participación de la comunidad universitaria de la EHU y de las organizaciones sociales, ONGDs, organismos del tercer sector, movimientos sociales y/o agentes técnicos y técnicas de las instituciones públicas. Se aspira a que estas actividades concretas se integren en un recorrido y trabajo posterior a la finalización de esta convocatoria, que pudiera materializarse en la presentación de una propuesta de micro-credencial conjunta o cualquier otra actividad que ayude a la mejora de la acción de las organizaciones sociales en 2026. En concreto, aunque no de forma exclusiva, se propone aprovechar las oportunidades que se abren con la apuesta de la EHU por ampliar el programa de micro-credenciales, o enseñanzas propias de la EHU ligadas a actividades formativas de corta duración, cuyo objetivo es proporcionar habilidades, competencias y conocimientos específicos. Actualmente está en marcha un plan que permite reducir hasta en un 70% el importe de la matrícula de las micro-credenciales universitarias, además de aportar becas de matrícula para personas en situación de vulnerabilidad. |
| 4.4. Pertsona edo talde adjudikaziodunek jarduerak egingo diren egunen berri eman beharko diete EHUguneri eta Garapen Jasangarriko eta Konpromiso Sozialeko Zuzendaritzari, nahikoa aurrerapenarekin. Pertsona edo talde horiek EHUgunerekin lan egin ahal izango dute, eta azken horrek konpromisoa hartzen du jarduerak egiten laguntzeko, koordinazio estrategien edo bere esku dagoen beste edozein formularen bidez. | 4.4. Las personas o grupos adjudicatarios deberán informar de la fecha de realización de las actividades, con anterioridad suficiente, a EHUgune y la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social. Estas personas o grupos podrán colaborar con la Dirección de EHUgune, quien, a su vez, se compromete a ayudar en la realización de las actividades a través de estrategias de coordinación, o cualquier otra fórmula que esté a su alcance. |
| 4.5. Diruz lagundutako ekintzak gizarte ekitatiboagoa, konprometituagoa, jasangarriagoa eta bidezkoagoa lortzeko | 4.5. Las acciones subvencionadas deberán estar orientadas a la transformación hacia una sociedad más equitativa, comprometida, sostenible y justa. |

| | |
|---|---|
| eraldaketara bideratu beharko dira. Genero ikuspegia txertatu beharko da ekintzen diseinuan, garapenean eta justifikazioan. | La perspectiva de género debe estar presente en el diseño, ejecución y justificación de la acción. |
| **5. Eskaerak aurkeztea, epeak eta dokumentazioa** | **5. Presentación de solicitudes, plazos y documentación** |
| 5.1. Eskaerak aurkezteko epea irekita egongo da **2025eko ekainaren 13ra arte**. | 5.1. El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto **hasta el 13 de junio de 2025**. |
| 5.2. Dokumentazioa | 5.2. Documentación |
| Oinarri hauen 1. ERANSKIN gisa jasotako inprimakian eskatutako datu guztiak bete beharko dira. | Deberán cumplimentarse todos los datos solicitados en el formulario que aparece como ANEXO 1 a estas bases. |
| 5.3. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14 e) artikuluan eta 2021eko apirilaren 28ko EHUren Idazkari Nagusiaren Ebazpenean ezarritakoarekin bat (erabaki horrek onartu egiten ditu interesdunek EHUrekiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere), eskaera EHUren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko da (URL helbidea: https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico;), eta eskaeraren "Xedea" atalean, "EHUgune, EHUren Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritza" hautatu beharko dute. Horretarako, hauetakoren bat erabili beharko da: EHUren enplegatuaren ziurtagiri elektronikoa, Izenperen erabiltzailearen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa edo FNMT- CERES Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionaleko ziurtagiriak. | 5.3. De conformidad con lo establecido en el artículo 14 e) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la resolución del Secretario General de la EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre identificación y firma electrónica de las personas interesadas en sus relaciones electrónicas con la EHU y de las personas empleadas que prestan servicios en la misma, la solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la EHU, ubicado en la dirección URL https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico, eligiendo en "Destino" de la solicitud "Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social de la EHU". Para ello, se deberá utilizar el certificado electrónico de empleado o empleada de la EHU, el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES. |
| Halaber, sektore publikoko erakundeetatik edozeinen gainerako erregistro elektronikoetan aurkeztu ahal izango da; eta, salbuespenezko kasuetan, aurrez aurre EHUren erregistroen arloko arreta bulegoetan. EHUren erregistroen arloko arreta bulegoetan aurkeztutako eskaerak eta agiriak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizko agiriak interesdunari emango zaizkio, funtzionarioaren aurrean identifikatu eta jarduketa horretarako berariazko onarpena jaso | Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público y, en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la EHU. Las solicitudes y documentos presentados en las oficinas de asistencia en materia de registros de la EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa su identificación ante la persona |

| | |
|---|---|
| ondoren, bat etorriz 2021eko apirilaren 28ko EHUko Idazkari Nagusiaren Ebazpenarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu erregistroen arloko arreta bulegoei buruzko instrukzioa, EHUn eskaerak, idazkiak edo beste komunikazio batzuk funtzionario publiko gaituaren bidez aurkezteko aukera, eta funtzionario publiko gaituen erregistroa). | funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas. |
| 5.4. Eskaera aurkeztearekin batera, deialdia eta haren oinarriak onartzen dira. | 5.4. La solicitud supone la aceptación de la convocatoria y sus bases. |
| 5.5. EHUk eskubidea izango du proposamenen edukia argitu edo zehazteko bidezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatzeko. | 5.5. La EHU se reserva el derecho a reclamar la información complementaria que considere conveniente para aclarar o detallar el contenido de las propuestas. |
| **6. Baloraziorako irizpideak** | **6. Criterios de valoración** |
| 6.1. Ebaluazio irizpideak (100 puntu) | 6.1. Criterios de evaluación (100 puntos) |
| 1-. Ekintzaren intzidentzia eta inpaktua, prozesua eta espero den emaitza bereizita (40 puntu).<br>1.1. Kontuan izango dira abiarazi nahi den erronkaren garrantzia eta argitasuna. Proposatutako dinamikan erakunde kolaboratzaileek duten inplikazioa baloratuko da.<br>**1.2.** Proposatutako dinamikaren irismena baloratuko da, indargune eta ahultasunen diagnostiko partekatu bat lortzeari eta erakunde sozialen eraldatze gaitasuna hobetzera bideratutako etorkizuneko lankidetza aukerak identifikatzeari dagokienez. | 1-. Incidencia e impacto de la acción, diferenciando el proceso y el resultado esperado (40 puntos).<br>1.1. Se considerará la relevancia y claridad del reto que se pretende abordar. Se valorará la implicación de las organizaciones colaboradoras en la dinámica propuesta.<br>**1.2.** Se considerará el alcance de la dinámica propuesta para conseguir un diagnóstico compartido de fortalezas y debilidades y para identificar oportunidades de colaboración a futuro orientadas a la mejora de la capacidad de transformación de las organizaciones sociales |
| 2-. Diseinu metodologikoa (20 puntu).<br>Diseinuaren kalitatea, jasangarritasuna eta arrazoizkotasuna baloratuko dira, hobekuntza proposamenak aurkezteari dagokionez. Genero ikuspegia txertatzea ere baloratuko da.<br>3.- Aurrekontuaren justifikazioa (15 puntu).<br>Planteatutako helburu eta metodologiaren arabera aurreikusitako baliabideen garrantzia eta justifikazioa baloratuko da. Lantegiak edo mintegiak bideratzeko zerbitzuen kasuan, kontratazio horrek hausnarketa partekatuen | 2-. Diseño metodológico (20 puntos).<br>Se valorará la calidad, sostenibilidad y razonabilidad del diseño para propiciar propuestas de mejora. Se valorará la presencia de la perspectiva de género.<br>3-. Justificación del presupuesto (15 puntos)<br>Se valorará la pertinencia y justificación de los recursos previstos en base a los objetivos y la metodología planteada. En el caso de servicios de facilitación de los talleres o seminarios, deberá justificarse el aporte esperado de esta contratación |

| | |
|---|---|
| kalitateari egitea espero den ekarpena justifikatu beharko da.<br>4.- Pertsona edo talde parte-hartzaileen ibilbidea (25 puntu)<br>Pertsona edo talde eskatzaileen ibilbidea baloratuko da, eraldaketa sozialarekin lotutako transferentziari, dibulgazioari eta/edo ikerketari dagokionez. Eraldaketa soziala da ekitatea eta inklusio soziala sustatzea, bai eta herritarren solidaritatearen eta erantzukizunaren kultura bat finkatzea ere. Talde parte-hartzaileek eraldaketa sozialaren esparruan egin duten ibilbidea baloratuko da. | a la calidad de las reflexiones compartidas.<br>4-. Trayectoria de las personas o grupos participantes (25 puntos)<br>Se valorará la trayectoria de las personas o grupos solicitantes en términos de transferencia, divulgación y/o investigación relacionada con la transformación social, entendida como la promoción de la equidad y la inclusión social, así como la consolidación de una cultura de solidaridad y responsabilidad ciudadana. Se valorará la trayectoria de los grupos participantes en la transformación social. |
| 6.2. Nahitaezko irizpideak: | 6.2. Criterios obligatorios: |
| 6.1 irizpideaz gain, ezinbesteko eskakizuna izango da honako hauek aplikatzea ekintza bat deialdian sartu ahal izateko: | Además del criterio 6.1. será requisito imprescindible para que una acción forme parte de esta convocatoria, que ésta presente: |
| a) Hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzea. | a) Utilización del lenguaje inclusivo y no sexista. |
| Ez dira kontuan hartuko gizonak nahiz emakumeak ordezkatzen dituen hizkera inklusiboa erabiltzen ez duten ekintzak. | No serán estimadas aquellas acciones que no estén formuladas con un lenguaje inclusivo, en el que los hombres y las mujeres estén representadas. |
| b) Guztira gutxienez 65 puntu lortu izana. | b) Haber conseguido una puntuación mínima de 65 puntos sobre el total. |
| **7. Laguntzen adjudikazioa** | **7. Adjudicación de las ayudas** |
| 7.1. Ebazpen honetako 5. oinarrian adierazitako eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, 10 eguneko epea emango da jakinarazpena jaso dutenek hutsak zuzendu ditzaten. Halaber, ohartaraziko da, hori egin ezean, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluarekin. | 7.1. Finalizado el plazo de presentación de solicitudes señalados en la base 5ª de esta resolución, se concederán 10 días para subsanar los defectos a quienes se les notifique tal circunstancia, con la advertencia de que no hacerlo conlleva que al solicitante se le tenga por desistido en su solicitud, de conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas |
| 7.2. Eskaerako hutsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epea amaitu ondoren, xede horretarako eratutako Ebaluazio Batzordea bilduko da. Hauek osatuko dute Batzordea: burua Koordinazio eta Konpromiso Sozialeko errektoreordea edo hark eskuordetutako pertsona bat izango da; idazkaria EHUko Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso | 7.2. Transcurrido el plazo de 10 días hábiles para subsanar los defectos de la solicitud, se reunirá la Comisión de Evaluación establecida al efecto, presidida por la Vicerrectora de Coordinación y Compromiso Social de la EHU, o quien delegue; una persona técnica de la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social de la EHU, que actuará de secretaria; el director de EHUgune y la |

| | |
|---|---|
| Sozialerako Zuzendaritzako teknikari bat izango da; eta batzordeko kide izango dira EHUguneko zuzendaria eta Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako, edo haiek eskuordetutako pertsonak. | Directora de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social, o las personas en las que deleguen. |
| 7.3. EHUko Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzak jakinaraziko die parte-hartzaileei deialdiaren emaitza. Era berean, ebazpena EHUren Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzaren webgunearen bidez argitaratuko da. | 7.3. La Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social de la EHU notificará a las personas participantes el resultado de la convocatoria. De igual modo, se hará pública la resolución a través de la página web de la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social de la EHU. |
| 7.4. Ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, bat etorriz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan xedatutakoarekin. Bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. | 7.4. La resolución podrá ser recurrida en reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación y ante el mismo órgano que la ha dictado, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 112 de la Ley 39/2015. De 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; o bien, pero no de manera simultánea, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación. |
| 7.5. Onuradunek, laguntza onartzearekin batera, deialdi honetan ezarritakoa eta bertan ezarritako baldintzak betetzeko konpromisoa hartzen dute. | 7.5. La aceptación de la ayuda por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a lo establecido en esta convocatoria y al cumplimiento de los términos de la misma. |
| **8. Ordainketa** | **8. Pago** |
| Ordainketak egiteko, EHUko ohiko prozedurari jarraituko zaio: intsuldaketa egingo da proiektu/ekintza bakoitzerako esklusiboki irekitako aurrekontu klabe batera. Ordainketa bakar bat egingo da laguntza adjudikatu ondoren.<br><br>Elkarteen kasuan, emandako dirulaguntzaren % 100 entregatuko da banku transferentziaren bidez. Aurretiaz, dirulaguntza jasoko duen elkarteak konpromiso bat sinatuko du ziurtatzeko ekintza ezarritako epean gauzatuko duela. | Los pagos seguirán los procedimientos habituales de la EHU mediante traspaso a la correspondiente clave presupuestaria abierta exclusivamente para cada proyecto/acción. Se realizará un único pago tras la adjudicación de la ayuda.<br><br>En el caso de las asociaciones se entregará el 100% de la subvención concedida mediante transferencia bancaria. De forma previa, se firmará un compromiso de la Asociación receptora de la subvención comprometiéndose a llevar a cabo la acción en el plazo fijado. |
| **9. Jardueren jarraipena eta justifikazioa** | **9. Seguimiento y justificación de las actividades** |

| | |
|---|---|
| EHUgunek lankidetzan jardungo du ekintzen arduradunekin, horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Jarduera egiteko egunaren berri eman beharko da nahikoa aurrerapenarekin. Proiektua amaitzean, memoria bat aurkeztuko da. Dokumentu operatiboa izango da, eta honako hauek jasoko ditu: ekintzaren garapena, diagnostikoaren emaitzak eta esku hartze soziala hobetzeko proposamena. Prozesuaren dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da. Memoria Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzari bidali beharko zaio 2026ko urtarrilaren 31a baino lehen. Gastuak 2025 ekitaldikoak izan beharko dira. | Desde EHUgune se colaborará con las personas responsables de las distintas acciones, a fin de acompañar el seguimiento y evaluación de las mismas. Se deberá informar con antelación de la celebración de la o las actividades. Al finalizar el proyecto se presentará una memoria, entendida como un documento operativo que delimite el desarrollo de la acción, los resultados del diagnóstico y la propuesta para la mejora de la intervención social. Se deberá presentar documentación gráfica del proceso. Este entregable deberá facilitarse a la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social nunca más tarde del 31 de enero de 2026. Los gastos deberán corresponder al ejercicio 2025. |
| Deialdi honen esparruan finantzatutako jarduerak egin aurreko edo ondorengo edozein dokumentazio edo euskarri publiko edo pribatutan, adierazi beharko da ekintzak EHUguneren eta Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzaren laguntzarekin gauzatu direla. | En cualquier documentación o soporte, público o privado, previo o posterior a la realización de las actividades financiadas en el marco de esta convocatoria, habrá de constar que se han llevado a término con la ayuda de EHUgune y la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social. |
| **10. Laguntzak baliogabetzea** | **10. Revocación de ayudas** |
| 10.1. Eskaeraren edukian aldaketarik egiten bada, horren berri eman beharko zaio Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzari dagokion baimena emateko xedeetarako nahikoa aurrerapenarekin. | 10.1. Cualquier cambio sobre el contenido de la solicitud habrá de ser comunicado a la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social con la antelación suficiente a los efectos de emitir la correspondiente autorización. |
| Koordinazio eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak, Garapen Jasangarrirako eta Konpromiso Sozialerako Zuzendaritzak arrazoitutako proposamenez, osorik edo partzialki baliogabetu ahal izango du emandako dirulaguntza, baldin eta ezarritako terminoak errespetatzen ez badira eta/edo behin-behineko aldaketak edo aldaketa nabarmenak aurretiaz jakinarazi eta baimendu ez badira. | La Vicerrectora de Coordinación y Compromiso Social, a propuesta motivada de la Dirección de Desarrollo Sostenible y Compromiso Social o la Dirección de EHUgune de la EHU, podrá revocar total o parcialmente la subvención concedida cuando no se respeten los términos establecidos y/o cuando aquellas alteraciones temporales o sustantivas no hayan sido previamente comunicadas y autorizadas. |
| 10.3. Deialdi honen oinarrietan aurreikusi ez denerako, bi lege hauek aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena, eta azaroaren 18ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzkoa. | 10.3. En lo no previsto en las bases de esta convocatoria será de aplicación el Decreto legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y la Ley 38/2003, de 18 de noviembre, General de Subvenciones. |
| 10.4. Ebazpenaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko | 10.4. Contra la presente resolución se podrá interponer el correspondiente recurso potestativo |

| | |
|---|---|
| epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikulua). Bestela, baina ez aldi berean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ere aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. | de reposición desde el día siguiente a su publicación en el plazo de un mes (artículo 112 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común las Administraciones Públicas), o bien, pero no de manera simultánea, recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado correspondiente de lo contencioso administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de su publicación. |
| | |
| Leioan, 2025eko maiatzaren 28an. | En Leioa, a 28 de mayo de 2025. |
| | |

**Sin./Fdo.: Aitziber Mendiguren Ordorika**
Koordinazio eta konpromiso sozialeko errektoreordea
Vicerrectora de coordinación y compromiso social

14263367D AITZIBER MENDIGUREN (R: Q4818001B)

Firmado digitalmente por 14263367D AITZIBER MENDIGUREN (R: Q4818001B)
Fecha: 2025.05.28 15:22:03 +02'00'